**102/2011 Legez besteko Proposamena, uhin elektromagnetikoak isurtzen dituzten euskarri eta azpiegituren erabilera eta ezarpena erregulatuko duen legea egitearen inguruan (Osoko Bilkuraren erabakia)**
(09/11.02.01.0579)

Eusko Legebiltzarrak, 2011ko urriaren 5ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen onestea Aralar legebiltzar-taldeak egindako legez besteko proposamena.

Lehendakaritza honek, Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 105.1 artikuluan adierazitakoari jarraituz, agintzen du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabaki hori.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria Arantza Quiroga Cia

NIK, JESÚS LOZA AGUIRREK, EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIKO LEHEN IDAZKARI NAIZEN HONEK,

**ZIURTATZEN DUT**

Eusko Legebiltzarrak, 2011ko urriaren 5ean egindako osoko bilkuran, 102/2011 Legez besteko Proposamena onetsi duela, uhin elektromagnetikoak isurtzen dituzten euskarri eta azpiegituren erabilera eta ezarpena erregulatuko duen legea egitearen inguruan, ondoko testuaren arabera:

**"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:**

**1. Bat egin dezala Europako Kontseiluaren Parlamentu Batzarraren 1815 Ebazpenarekin, eta jarraitu dezala segimendua egiten telekomunikazio- azpiegiturek, telefono mugikorrak barne, beren funtzionamenduan sorrarazitako erradiazio ez-ionizatzaileek gizakien osasunean daukaten eraginari buruzko ikerketa berriei –veste instituzio batzuek arlo honetan hartzen dituzten ekimenekin lankidetzan arituz– eta ikerketa horien konklusioen arabera jokatu dezala, arlo honetan lege-garapena egitea saihestu gabe, osasuna babesteko helburuarekin.**

**2. Jarraitu ditzala, telefono mugikorren kasuan adin orotako pertsonek egin beharreko erabilerari dagokionez, hala Europar Batasunak nola Osasunaren Mundu Erakundeak egiten dituzten gomendioak.**

**3. Kanpainak egin ditzala umeen artean telefono mugikorrak neurrigabe erabiltzearen kontra".**

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2011ko urriaren 5ean.

Mahaiko lehen idazkaria, Jesús Loza Aguirre. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Arantza Quiroga Cia.

**Proposición no de Ley 102/2011, relativa a la creación de una ley reguladora del uso e implantación de soportes e infraestructuras emisoras de ondas electromagnéticas (Acuerdo del Pleno)**
(09/11.02.01.0579)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 5 de octubre de 2011, adoptó el acuerdo de aprobar la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Aralar.

Esta Presidencia, al amparo de lo dispuesto en el artículo 105.1 del vigente Reglamento de la Cámara, ordena la publicación del mencionado acuerdo en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco Arantza Quiroga Cia

JESÚS LOZA AGUIRRE, SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO,

**CERTIFICO**

Que el Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 5 de octubre de 2011, ha aprobado la Proposición no de Ley 102/2011, relativa a la creación de una ley reguladora del uso e implantación de soportes e infraestructuras emisoras de ondas electromagnéticas, con arreglo al siguiente texto:

**"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:**

**1. Adherirse a la Resolución 1815 de la Asamblea Parlamentaria del Consejo de Europa, y a continuar con el seguimiento de las nuevas investigaciones en torno al impacto en la salud humana de las radiaciones no ionizantes generadas por las infraestructuras de telecomunicaciones, incluidos los teléfonos móviles, durante su funcionamiento –en colaboración con las iniciativas de otras instituciones en esta materia– y a actuar en consecuencia, sin descartar el desarrollo legal en este ámbito, a favor de la protección de la salud.**

**2. Seguir las recomendaciones que, respecto al uso de teléfonos móviles por parte de personas de todas las edades, realicen tanto la Unión Europea como la Organización Mundial de la Salud.**

**3. Realizar campañas contra el uso inmoderado de teléfonos móviles entre los niños y niñas".**

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 5 de octubre de 2011.

El secretario primero de la Mesa, Jesús Loza Aguirre. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga Cia.